


EAEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 2,0 egin dute behera, 2021eko urrian

Aurreko hilarekin alderatuta, berriz, salmentek % 0,6 egin dute gora, eta, hala, urteko metatuak % 0,5 egin du gora

Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek, 2021eko urrian, aurreko urteko hil berarekin alderatuta, % 2,0ko jaitsiera erregistratu dute, prezio finkoetan, Eustatek emandako datuen arabera. Aurreko hilarekin alderatuta, berriz, hil artean % 0,6ko hazkuntza izan da.

Aurten, orain arte, 2021eko lehen hamar hiletan metatutako bilakaera positiboa izan da; salmentek % 0,5 egin dute gora, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Urte arteko terminoetan, merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmenten beherakada elikagaietan izan den beherakadaren (% 3,1) ondorio izan da; izan ere, gainerako produktetan % 0,3ko aldakuntza positiboa izan da.

Salmenten urte arteko bilakaera ez da uniformea lurralde historikoen arabera. Gipuzkoan eta Araban salmentek % 5,0 eta % 2,8 egin dute behera, hurrenez hurren, eta, Bizkaian, salmentak 2020ko urriko maila berean daude (% 0,0ko aldakuntza).

2021eko irailarekin alderatuta, urriko salmentek merkataritza-azalera handietan eta elikadura-kate handietan jarraitu dute gora egiten, bi produktu motetan. Hala, elikagaien salmentek % 0,3 egin dute gora eta gainerako produktuenek, % 1,2.

Hilen arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurralde historikoetan. Araban, hilen arteko igoera % 1,2koa izan da; Gipuzkoan, % 0,8koa, eta, Bizkaian, % 0,4koa.

2021eko urtariletik urrira bitarteko metatua, elikagaien salmenten indizeak % 3,4ko jaitsiera izan du, aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta. Gainerako produktuen salmenten bilakaera, berriz, positiboa izan da, 2020ko aldi metatu berean baino % 9,5 handiagoa.

Lurralde historikoen arabera, aurten, orain arte, aldakuntza metatua positiboa da Bizkaian (% 2,4) eta Araban (% 1,5), eta Gipuzkoan, berriz, 2021eko lehen hamar hiletan, salmenta metatuak 2020ko aldi berekoak baino % 3,3 baxuagoak izan dira.

Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako enplegatuen indizea, 2021eko urrian, egonkor matendu da, aurreko hilarekin alderatuta (% 0,0ko aldakuntza). Aurreko urteko hil berarekin alderatuta, berriz, pertsonalaren indizeak % 4,2 egin du gora. 2021eko lehen hamar hiletako metatua, igoera % 3,9koa izan da.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Urria 2021 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-2,0	0,6	0,5
Araba/Álava	-2,8	1,2	1,5
Bizkaia	0,0	0,4	2,4
Gipuzkoa	-5,0	0,8	-3,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	-3,1	0,3	-3,4
Beste produktuak	0,3	1,2	9,5
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	4,2	0,0	3,9

(p) behin-behineko datuak

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak kalkulatzeko, egutegi-eraginik gabeko serie zuzenduak erabiltzen dira, eta, hil arteko aldakuntzak kalkulatzeko, urtaro-eraginik gabeko serieak.

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste batzuetan kontuan hartutako enplegatuen artean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientepean dauden pertsonak daude, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) enpleguaren

inguruan [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jaso duen definizioari jarraikiz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaien gainean izandako eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraikiz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietan eta elikadura-kate handietan merkataritza-indizea prestatzen elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, 2021eko urriko indizea **% 97,5eko babesarekin** kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62